

2016ko Gasteizko Euskararen astea

Etorkizuna bezala, Gasteizen euskara da gazteena neurri handi batean. Askorentzat eguneroko hizkuntza da eskolan, institutuan edo unibertsitatean. Hala ere, erronka handiena da kalean, lagunartean, kirola egitean, aisialdian, hots, egunerokoan erabiltzea. Horra hor helburua, gustuko helburua, gazte zein hain gazte, denok, batzen gaituena eta ospatzeko modukoa dena... Hortik Gasteizko euskararen astea! Dударik gabe norberak asko egin dezake euskararen alde, urteko egun bakoitzean. Aurten eragile askoren artean* prestatutako egitarauan badira izaera askotariko jarduerak; abiapuntu eta pizgarri izan daitezten egunero-egunero euskara gustura erabiltzeko!

Hurrengo egunotan programazio osoaren berri emango dizuegu, baina aurrerapen gisa hona hemen jarduera batzuk:

- Jon Maiaren hitzaldia: *Etorkinen integrazioa eta bertakoen egokitzapena*
- *Kantari* karaoke ikuskizuna
- Gazteentzako *Mintzodromoa*
- *Gasteizko Euskararen Ginkanaren* finala
- Kirmen Uriberen *Elkarrekin esnatzeko ordua* nobelaren aurkezpena.
- Manex Agirrerren eta Gorka Amondarainen *Agiñako zero bat* lanaren aurkezpena
- *Mami Lebrun* antzezlanaren antzokian
- *Laboa gertutik* erakusketaren inaugurazioa eta *Txoriak* dantza ikuskizuna
- *Euskarak 365 egun* kandlekin irudikatzea Andre Maria Zuriaren plazan
- *Desiren arbola*. Etorri eta eskegi euskararekiko zure desioa!

* Zabalzana auzo elkarte, GEU, ALEA, Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarte, Arabako Bertsozaleen elkarte, Topagunea, Ekogunea, EHUko Mikel Laboa Katedra, Laboral Kutxa, Vital Kutxa, Oihaneder Euskararen Etxea, AFA, Gasteizko Berritzegunea, Vitoria-Gasteizko Udala.